



BARREN
TOKIKOM



Museo bizia



Carmen Flores Molina

2019ko otsailaren 12an hil zen, 77 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



V. URTEURRENA

Amaia Arrizabalaga Arakistain

2014ko otsailaren 18an hil zen, 44 urte zituela.


*Beren bidea jarraitu dute
hiru seme-alaba handik.
Zure keinuak suma zaizkie,
bai hemendik eta bai handik.*

*Bizi betea dute, Amaia
zure hutsunea gaindik,
beraiek hala ikusi izanak
niri indarra eman dit.
Jada bost urte igaro dira
joan zinela gugandik,
baina gogoan zaitugulako
gurekin zaude oraindik.*

Etxekoak




Eskertzak eta urteurrenak
943 744 112

Iñaki Agirre Osoro
2019ko otsailaren 12an hil zen, 62 urte zituela

Betirako izango zaitugu gogoan.
Adur, Maider eta gainerako senideak

ANE ASTIAZARAN

Itzultzailea



Interesen kultura

razi dute. Donostiako Tabakalera kokatuta dagoen Ubik sorkuntza liburutegiko langileek ere greba hasi zuten abenduan. Askok jakingo ez duzuen arren, azpikontrata batentzat egiten dute lan, baldintza tamalgarrietan, bitartekaritza lanak egiten dituzten enpresa horiek inongo erreparorik gabe esplotatzen baitituzte langileak, instituzio publikoen babesarekin, gainera.

Ironikoa da instituzioetatik kulturari eman ohi zaion "garrantzia", atzetik berau lurperatzeko ahaleginetan dabiltzala baitirudi. Eta interesgarria da horren guztiaren inguruan hausnartzea, askotan kultur eskaintza murriztua ikustea agerikoa izaten baita, baina inoiz gutxi pentsatzen dugulako langileak direla kontsumitzaileen

aurretik kaltetuta irteten direnak.

Kulturaren arloan (baita beste askotan ere, noski, baina oraingoan sektore honi heldu nahi izan diot) ari diren langile askoren prekarizazioa goitik datozen interesen ondorio zuzena da, eta horien aurka borrokatzea, berriz, hegemonia kulturala kolokan jartzea. Kulturaren eguneroko kontsumitzaile gisa gure erabakia da hau edo hura babestea; langile gisa, bestalde, gure aukera (edo betebeharra?) antolatu eta eskubideak aldarrikatzea.

Elkartasun osoa, beraz, behinola grebetan aritu zirenei, gaur ari direnei, eta (zoritarrez) etorkizunean arituko direnei. Montserrat Roig idazle katalanak zioen moduan "kultura da epe luzean aukera politikorik iraultzaileena". Ez goaz, beraz, bide txarretik.

Duela gutxi jakin dut euskal bikoiztaileak greban daudela, EITBk urten 100 ordu soilik bikoiztuko dituela erabaki baitu. Bikoiztaile Euskaldunen Elkarteko kideek adierazi dutenez, urtetik urtera murrizten joan da ordu kopuru hori, eta azken zifra horrek euskarazko bikoizketen azkena ekarriko duela oharta-

"Ironikoa da instituzioetatik kulturari eman ohi zaion 'garrantzia', atzetik berau lurperatzeko ahaleginetan dabiltzala baitirudi"



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euskal Lehenen Topagunea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuizak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zaloa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enetz Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR
UDOLA
KULTURAMENDI

LAGUNTZAILEAK:

MENDARO
1981

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ESKERRIK ASKO

Elgoibarko Odol Emaileen Elkarteak eskerrak eman nahi dizkie kolaboratzaile guztiei, beraiei esker posible delako odola ematea bezalako giza ekimen hori aurrera eramatea gure herrian. Eskerrak eman nahi dizkiegu berezi odol emaileei, bazkide laguntzaileei, Udalari, Ibar Txiki Ardoak eta Julio Bueno arandegiei, Altzola Urak eta Danobat enpresei eta herriko prentsako berriemaileei.

Gutun honen bidez herritarrei, eta bereziki gazteei dei egin nahi diegu odola ematera animatu daitezen.

Elgoibarko Odol Emaileak

► GOIAN BEGO

lñaki... zer esan lñakiri buruz jakingo ez dugunik. Zine Klubaren arima zen, zinearen eruditua... buru pribilegiatua, zineari eskainitako bizitza. Elgoibartarrok asko zor diogu lñakiri. Baina hori guztiok dakigu. Nik ezagutu dudana lñaki hori bihotzbera zen, sentikorra, espiritu librea... Burokraziatik, gatazketatik ihes egiten zuen. 30 urteko harremana izan dugu; Kultur Etxea bere etxea zen. Hala sentitzen zuen berak. Beti laguntzen zidan zinearen programazioarekin, bere kritikak eskaintzen zizkidan, bere lankidetzara... Harantzago zihonan, baina: konfidentea ginen, lagunak. "Un colocon", berak esaten zuen moduan.

Eta haren burua itzali denean, distira ilundu denean, alde egitea erabaki du,

ikusezin bihurtzea. Eta espiritu libreek hegan egiteko joera dutenez, horixe egin du.

Lagun bat joan da, bihotzeko lagun bat. Azkar joan da, gainera, isilik; ikusezin bihurtu da. Halakoa zen. Zorionekoa naiz, bizitzan esan behar nion guztia esan diodalako. Pozik nago lagun egin diodalako. Azken kafea hustu dugu.

Lankidea, neke-laguna, nire bizitzako maiteetako bat. Joan egin da. Ixil-ixilik. Goian bego lñaki.

Blanca Salegi

► EGONGO GARA, lÑAKI!

Gurean Bai hitzarmena zela eta ezagutu zintudala uste dut. Elgoibarko Izarrara etortzen zinen Abelengana Ongarriko kontuekin. Baina politika, zinea edota bestelako gaien gainean ere jarduten genuen. Berbalde luzeak izaten zirela akordaten naiz. Zu gustura gurekin eta gu ere bai zurekin. Eta go-goan daukat ez zela batere erraza izaten berbetarako txanda hartzea. Etorri onekoa zinen; asko zenekien eta asko gustatzen zitzaizun pentsatzen zenuena kanporatzea. Zorrotz eta argi, denok ulertzeko moduan. "lñaki, lana daukagu" esan ondoren hartzen zenuen kanporako bidea, baina bagenekien berandu baino lehen bueltatuko zinela.

Akordaten naiz bulegoko giltza eta nire ordenagailua ere lagatzen genizkizula Ongarriko lanak gauetan egiteko.

Baldintza bakarra ipintzen nuzun: zigarrorik ez, mesedez, mahai gainean. Ez zenidan beti kasu egiten, eta behin baino gehiagotan astindu behar izan nuen ordenagailuko teklatua zuk lagatuko arrastoak kentzeko.

Gerora, baina, Elgoibarko Izarrarako zure joan-etorriak amaitu eta kalean baino ez zintudan ikusten. Edo hainbeste maite zenuen Azkarateko bidean. Han gora joaten zinen ia egunero bake bila, zigarroa atzaparretan hartuta, zeure buruarekin egotera, pentsatzera. "Zer moduz?" galdetu elkarri eta beti hartzen genuen tartetxo bat berbetarako. Asko gustatzen zitzaidan zurekin berba egitea.


Ez dakit noiz egon ginen azkenekoz, baina badakit Txariduna parean izan zela. Banekien gaixorik zeundela, etxera erretiratuta, eta izugarriko poza hartu nuen kalean ikusi zintudanean. Ez genuen luze jardun, baina batzuetan denbora gutxi behar izaten da aurrean daukazunari sentitzen duzuna azaltzeko.

Egongo gara, lñaki! Esan didate oso diferente zaudela, ilea motz-motz eginda, baina ezagutuko zaitudala uste dut. Elkarri bostekoa eman eta biotako bat aspertu arte jardungo dugu.

Imanol



HONEY lastaira umeen garapen eta hazte prosezuan ezaugarri eta berezitasun guztiak kontuan hartzen duen bakarra da. 2 gune dituen lastaira izategatik desberdintze da:



1. gunea: 8 urtetik 8 urteko umeentzako egokia



2. gunea: 8 urtetik gorakoentzako egokitzen den gunea.

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

Bernardo Ezenarro kalea norabide bakarrekoa izango da



Elgoibarko Udalak 63.238 euro (BEZa barne) erabiliko ditu Bernardo Ezenarro kalea berrurbanizatzeko, eta besteak beste, norabide bakarrekoko kale bihurtuko dute. Horrez gain, galtzadaren alde batean hogeit hamar aparkaleku egingo dituzte. Era berean, San Rokera igotzeko igogailura doan espaloia ere zabaldu egingo dute, eta hala, igogailua eta anbulatorioaren arteko zebra bidetik igarotzen diren oinezkoen segurtasuna handituko da. Iosu Arraiz hirigintza zinegotziaren esanetan, lanak hurrengo asteetan hasita aurreikusten dute eta gutxi gorabehera bi hilabeteko iraupena izango dute, beti ere eguraldiak laguntzen baldin badu. 2018ko udal aurrekontuak osatzeko martxan jarritako prozesu parte hartzailean boto gehien jaso zituzten hiru proiektuetako bat da Bernardo Ezenarro kalea berrurbanizatzea.

Kataluniako agintariei babeserakusteko elkarretaratzea egin dute Mendaron



Martitzenean hasi zen Kataluniako agintarien aurkako epaiketa, eta Gure Esku Dago plataformak deituta elkarretaratzeak egin zituzten Euskal Herriko hainbat herritan, tartean Mendaron.

Barrua lantzen ikasteko tailerra, domekan

Urko Arozena (Oiartzun, 1971) psikologo eta entrenatzaile mentalak norbere barrua lantzeko tailerra eskainiko du domekan. Zoriontasuna erabaki bat dela ikasi zuen Arozenak, eta bere egunerokoan aplikatzeaz gain, besteekin partekatzen ditu bere esperientziak. 11:00etan izango da saioa, doan, musika eskolan. Izena emateko lora-men@dantzan.com helbidera idatzi behar da edo honako telefono zenbakira deitu: 696 874 842.

Kale Kantarien saio berezia hilaren 23an

Kalera irten beharrean, San Lazaro egoitzan egingo dute kantaldia Kale Kantarietako otsailaren 23an, eta gero bazkaria egingo dute herriko elkarte batean. Interesa duen orok hartu dezake parte, eta antolatzaileek esan dute ez dela derrigorrezkoa San Lazaron abestea bazkarira joateko. Hori bai, bazkaritarako izena emateko eskatu dute, hilaren 21erako: 687 216 766 (Ana)

Jubilatuena Biltokiko urteko batzarra hilaren 21ean

Jubilatuena Biltokiko bazkideen batzar nagusia otsailaren 21ean egingo dute, 17:30ean, biltokian bertan. Berrikuntzen artean, elkarteko estatutuak euskaraz ere jartzea aztertuko dute.

Emakumeentzako Jabetze Eskolako ikastaroak

Emakumeentzako Jabetze Eskolak bost ikastaro emango ditu martxoetik maiatzera bitartean. Norbere burua maitatzen ikasi, autodefentsa feminista, erotika femeninoa, mindfulness eta hausnarketa tailerra izango dira. Ikastaro guztiak doan izango dira. Interesatuak Herritarren Arretarako Zerbitzuan edo www.elgoibar.eus webgunean eman beharko dute izena, martxoaren 4a baino lehen. Plazak mugatuak izango dira.



Fosil eta mineralak: hitzik egin gabe asko esaten dutenak

25 urte pasatu dira Mufomi fosil eta mineralen museoa inauguratu zutenetik, eta gaur egun paleontologiari buruzko museoen artean osatuenerarikoa da Euskal Herrian. Fosil eta mineralen artean, garai desberdinetako 6.000 pieza inguru ditu ikusteko museoak: Historiaurreko garai desberdinetako tresnak daude, gaur egun desagertuta dauden animalien hezurdurak eta kolore eta itxura guzrietako mineralak. Javi Vargas da museoaren arduraduna, eta bere azalpenen bidez egin dugu historiaurretik gaur egunera arteko ibilbidea, fosil eta mineral artean.

- AINHOA ANDONEGI -

Mufomi jartzen du atean, eta gaur egun desagertuta da goen animalia baten irudia dago kanpoaldeko horman. Ez da irudi txikia, baina oharkabean pasatuko zaio jende askori, eta askok ez dute jakingo paleontologiako museorako sarrera denik hori. Artetxe kalean dago, garai batean Pedro Mugurutzako eskolak egon ziren lokalean. 25 urte pasatu dira museoa inauguratu zutenetik, baina berez, 1992tik dago museoa han, eta aurretik, Mendaron egon zen zazpi bat urtez. Mende laurden pasa dauka, beraz, Mufomik, baina Elgoibarko museorik ezezagunena izaten jarraitzen du. Javi Vargas elgoibartarra da arduraduna, eta berak zabaldu digu museorako atea. Barrura sartzeaz bat, milaka urtez egin dugu atzera, eta fosil eta mineral artean egin dugu gaur egunera arteko bidea. Isil-isilik daude fosil eta mineralak bitrintetan, baina isiltasun horren atzean

informazio asko gordetzen dute. Javi Vargasek jartzen die ahotsa, eta pasioz ematen ditu azalpen guztiak, izan ere, horixe da berarentzat Mufomi museoa: pasioa.

7 urte zituela hasi zen Javi Vargas harriak batzen. Garai hartan trenbideak buelta handia ematen zuen San Pedro auzo inguruan, eta gerora, San Pedro eta Arriaga auzoak lotzeko tunela eraiki zuten. Obra haien eraginez hondakinak pilatu ziren inguru hartan, eta urrea ziruditen harriak agertu ziren. Sekulako altxorra aurkitu zuelakoan etxeratu zen Javi Vargas egun hartan, baina gerora jakin zuen Pirita zela, *inozoen urrea* izenez ezagunagoa den minerala. Baina ez zion inozo izateak erreparorik eman; are, sekulako interesa piztu zitzaion. Handik aurrera ibai ertzetan, mendietan, harrobietan, kobazuloetan edota trenbide inguruetan aurkitzen zituen harribitxiak eramaten zituen etxera, eta amak za-



Fosil eta mineralen arten 6.000 pieza inguru daude museoan

Ikastetxeetako eskola-umeen taldeak izaten dira bisitari ohikoak, eta eskolan ikasten ari direnari buruzko azalpenak ematen dizkie Vargasek. Historiaurrea ikasten ari badira, historiaurreko tresnak eta fosilak erakusten dizkie, eta paleolito aroko garai desberdinak azaltzen dizkie: lehenengo tresnak kobrezkoak izan ziren, eta gero, brontzezko piezak egiten hasi zen gizakia. Brontzea askoz gogorragoa da, eta aldi berean, arinagoa. Brontze aroarekin batera, Egiptoko zibilizazioak agertu ziren, eta Paleolitoko tresnen azpiko apalean dauzka Vargasek Egiptoko piezak. Ondorengo bitrinan Rosetta harria dago, idazketa eta irakurketan berebiziko garrantzia izan duen harria, alegia. Hiru hizkuntzatan idatzitako testua dauka Rosetta harriak: Egipziar jeroglifikoa, domotikoa (arabiar hizkuntza bat) eta grekera. Greziako txaman batek lortu zuen harri horretan jartzen zuena irakurtzea eta horri esker lortu zuten jeroglifikoa irakurtzea. Burdinarora iritsiko gara ondorengo bitrinan, eta burdinezko tresnak ikusiko ditugu. Denboraren poderioz, brontzezko tresnak egiteari utzi zion gizakiak, eta burdinezkoak egiten hasi zen, baina burdina herdoildu egiten da, eta horrenbestez, ez zuen burdinak asko iraun.

Ikasleak aldez, dinosauroak ikasten ari badira, dinosauro ezberdinen garezurrekin ematen dizkie azalpenak, eta umeak taldeka jartzen ditu dinosauroak margotzen. Eta gauza bera egiten du fosilekin. Fosilak nola sortzen diren azaltzen du. Fosil gehienak itsasokoak dira. Itsasoan hiltzen diren animaliak hondoratu egiten dira, eta itsasoko sedimentuak haren gainean pilatzen dira. Itsasoa lehortzen denean, sedimentu horiek eta animalia bera harri bihurtzen dira. Harri horiek kontu handiz garbitu behar dira fosila aurkitzeko, eta batzuetan hilabeteak ematen dituzte harriak garbitze, fosila hondatu ez dadin. Milioika urte dituzten fosilak ikus daitezke museoan, eta fosil horiei esker ikus daiteke animalien garapena. Adibide modura, txibi batek gorputzean oskol gogorra zueneko lagin bat daukate. Denborarekin oskol hori galdu dute zefalopodoek, eta gaur egun ezagutzen ditugun txibiak bilakatu dira. Nolabait esateko, ikusleen beharretara moldatzen ditu Vargasek bisitak.

Fosil eta mineral artean 6.000 pieza baino gehiago ditu Mufomik, 4.000 fosil eta 2.000 mineral, eta oraindik beste pieza pila bat dituzte armairuan gordeta. Aspaldi hildako animaliak dira, denak fosilizatuak daude, baina museo bizi-bizirik dago eta etengabe osatzen dihardute. Ez da tankera honetako museo bakarra Euskal Herrian, baina pareko gutxi ditu. Urtean 2.500-3.000 bisita inguru izaten ditu, eta aurten dagoeneko 300 bat bisitari pasatu dira museotik. Arratsaldero egoten da Javi Vargas museoan, 18:00etatik aurrera, baina nahiago du bisitak egiteko telefonoz deitzea.

karrantzira botatzen zizkiola gogoratu du. Ez zuen etsi, baina, eta urteekin fosil eta mineraletarako zaletasuna indartu zitzaion. Piezak bilatzen jarraitu zuen, beste pieza asko erosi egin ditu eta beste mordoska bat trukatu egiten ditu zaletasun bera dutenekin. Fosil asko hemen inguruan aurkitu ditu: Deba, Mutriku, Zumaia edota Elgoibarren bertan ere aurkitu izan ditu Vargasek fosilak, eta Araban, Nafarroan eta Espainiako hainbat lekutan ere ibilitakoa da fosilak eta mineralak biltzen. Itsas-fosilak dira guztiak. Garai batean itsas hondoa zeuden lurretan bildutakoak dira denak, nahiz eta gaur, lur horiek mendi diren. Karakaten ere aurkitu izan ditu, garai batean, Karakate itsaso azpian sortu zelako. Konturatu zenerako harribitxi eta fosil pila bat zituen, eta lokal batean jarri zituen ikusgai. Museo bezala daukate gaur egun, baina Mufomi ez da ohiko museoa. Ez dauka bisita ordutegirik, baina aldi berean, edonork bisitatu dezake nahi duenean. Javi Vargas beti dago prest museoa zabaldu eta azalpenak emateko. Ez zaio inporta talde batentzat edo pertsona bakar batentzat zabaldu museoa, eta ez zaio inporta asteguna edo asteburua izan. Berak bere lana dauka, museokoarekin inolako zerikusirik ez daukan lanbidea bide batez esanda, eta lanetik irtendakoan joaten da museora. Bere ordu libre gehienak museoari eskaintzen dizkio. Gustuko du museoari buruzko azalpenak ematea, eta zaletasunez egiten du. Ez du ezer kobratzen, doan partekatzen du bere altxorra bisitariekin, eta halaxe izatea nahi du gainera. Ez dauka museoarekin aberasteko edo dirua egiteko asmorik, bere ustez zaletasunak, zaletasun izateari uzten diolako, obligazio bihurtzen den momentuan.

HIRU ADIBIDE

KROKODILOA

Duela bi milioi urte desagertutako Floridako krokodiloaren hezurdura hau ez da oharkabeen pasatzen museoan. Gaur egungo krokodiloen antzerakoa da, baina dagoeneko ez da existitzen. Hezur guztiak sakabanatuta aurkitu zituzten. Pazientzia eta denbora handiz eginiko lanaren emaitza da ikusgai jarri duten krokodiloa.



MAMUTA

Mamut eme baten buruak ere arreta pizten du. Emea dela letaginen formagatik dakite. Mamut arrek kiribilduagoak dituzte letaginak, eta emeek, zuzenagoak. Animalia hau duela 125.000 urte desagertu zen, baina museoan dagoen garezurak askoz urte gehiago izan ditzake. Permafrost inguruan aurkitutako pieza da, Siberian (Errusia). Izotzetan lurperatuta egon zen urteetan zehar, eta horregatik dago horren ondo zainduta. Javi Vargas ez da inoiz Permafrosten egon, baina gustatuko litzaioke hara joatea. Portugal eta Frantzia inguruetan ibili izan da, baina bestela ez du urrutira bidaiatu. Bere bidaiak zaletasun honen bueltan antolatzen dituela nabarmendu du.



HARTZAK

Museora sartu eta ikusten den lehenengo elementua animalia erraldoi baten hezurdura da. Bi hartz dira, baina handiak harra-patzen ditu ikusleen begirada guztiak. Zutik dago, eta 2,5 metro inguru neurtzen ditu. Uraletan (Errusian) aurkitutako hezurak dira, baina Arizonan (Estatu Batuak) egiten den feria batetik ekarri zituzten Elgoibarrera. Horrelako hezurdura bat osatzeko bost hartz hezurak behar dira gutxienez, eta gero hori guztia osatzen jakin egin behar da. Elgoibarren bertan osatu zituzten bi hartzak. Tamaina handiko hartz gaztea da, bere hortzek ematen duten informazioaren arabera. Hartz ugaztuna da, eta gizakiei gertatzen zaien bezala, urteekin hortzak galtzen ditu. Hartz honek hortz guztiak ditu, horregatik dakite gaztea dela. Ez dakite arra ala emea den, aldaka estua duelako. Suposatzen da emeek aldaka zabalagoa eduki beharko luketela erditu ahal izateko, baina hartz jaioberriak oso txikiak izaten dira. Panda hartzaren kasuan, esaterako, panda amak 200 kilo inguru izan ditzake, eta kumeak 90 gramo bakarrik pisatzen ditu. Hanka motzak ditu, hartz guztiek bezala. Museoan zutik jarri badute ere, hartzak lau hankatan ibiltzen dira, eta besoetan dute batez ere indarra. Hartz handi honen alboan, Permafrosten (Errusia) aurkitutako hartz txikia dago. Pare bat urte izango ditu txikiak; kumea da oraindik. Letaginak falta zaizkio, eta hezurak guztiz gogortu gabe zituela erakusten duten markak ditu. Bi hezurdura hauek dira ikusleen atentzioa bereganatzen dutenak. Hartz animalia indartsua eta azkarra da. 55 kilometro orduko abiadura hartzten dute. Konparaziorako datua eman du Javi Vargasek: Ussain Bolt, gizakietan azkarrena denak, 30 kilometro orduko hartu dezake.



Zuen keaxak, galderak edo txalokak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Mendaron eraiki berri den padel pista sare behar du: "Mendaron eraiki berri den padel pista ez dago egoki. Sare batez inguratzea behar du, bestela pilotek ihes egiten dute alboko zelaira, eta euria egiten duen egunetan hondatu egiten dira".



Sigma auzoko igogailuak sarritan hondatzen dira: "Idi-probak egoten direnean Sigmako aparkaleku estaliko igogailua ezin izaten dugu erabili, eta askotan, hurrengo egunean ere ez da erabilgarri egoten. Sigma auzoan bi igogailu daude, bata, hilerri aurrean, eta bestea, josteko makina dagoen lekuan. Bata ez bada bestea egoten da hondatuta. Askotan hondatzen direla iruditzen zaigu. Gurpildun aulkian nabil, eta Eulogio Estarta auzoan bizi naiz. Igogailuren bat hondatuta badago errepidea gurutzatu behar izaten dut, eta ingurune horretan autoak oso azkar ibiltzen dira". Josu Arraiz Hirigintza Saileko arduradunak esan du ez direla horrenbeste hondatzen. Enpresa arduradunak emandako datuen arabera, 2018an abisu bakarra jaso zuten josteko makinan dagoen igogailuari buruz. Ura sartu zelako hondatu zenean jaso zuten abisu hori. Mantenu lanak astero egiten dituztela gaineratu du, bai badaezpadakoa eta baita zuzentzekoa ere.

Mintxetako aldagelak txiki geratzen dira arratsaldeetan: "Mintxetako aldagelak, gizonezkoenak bereziki, txiki geratzen dira arratsaldeetan. Zazpi aldagela egon arren, ez dira nahikoak han ibiltzen den jende guztiarentzat. Batzuetan, gainera, aldagelaren bat itxita egoten da, obretan dagoelako edo beste edozein arrazoiengatik, eta horrelakoetan areagotu egiten da arazoa. Joan zen astean esaterako, futbola ez den kirolen bat egiten dugunontzat aldagela bakarria egon zen erabilgarri, eta ez zegoen ezertarako lekurik. Ez zegoen jarlekuetan eseritzeko tokirik, eta pertxa bakar bat ere ez zegoen libre. Horrelako egoeretan ezingo liriteke aire libreko igerilekuetako aldagelak erabili? Aldagela handiak dira, jende asko kabitzen da eta ia urte osoan itxita egoten dira". Ramon Mujika Kirol Patronatuko arduradunak ondorengo erantzuna eman digu: "Mintxetan ditugun zazpi aldagela horietatik lau futbol taldeek erabiltzen dituzte, eta beste hirurak, 5., 6. eta 7. aldagelak, bestelako jarduerak (muskulazio gela, atletismoa, padel eta tenis pista, spinning, e.a.) egiten dituzten gizonezkoek (7. eta 5. aldagelak) eta emakumezkoek (6. aldagela) erabiltzen dituzte. Arratsaldeko momentu batzuetan, erabiltzaile kopurua handia izaten denean, aldagelen kudeaketa ez da izaten batere eroso, batez ere emakumezkoentzat, aldagela bakarria dutelako. Aurreko bi asteetan 7. aldagelan itokinak zeudenez obretan aritu gara eta gizonezkoek 5. aldagela bakarrik erabiltzeko aukera izan dute. Aldagela hori berriro erabilgarri dago, beraz, gizonezkoek bi aldagela dituzte berriro. Mintxetako kanpoko igerilekuetan ditugun aldagelak urte osoan zehar ezin ditugu erabili, igerileku gunen bat delako eta udako denboraldia bukatzean, gune hori itxita egon behar izaten delako, segurtasun neurriengatik".

Pilarreko aparkalekua garbitu dute: "Eskerrik asko Josu Arraiz Hirigintza zinegotziari eta Eulen enpresari Pilarreko aparkalekua garbitzeagatik".

▶ IÑAKI ETXANIZ

HISTORIALARIA

‘Air Pyrénées aire konpainiaren historia laburra (1936-38) jaso du Iñaki Etxanizek (Elgoibar, 1990) ‘Air Pyrénées, la aerolínea de Euzkadi’ liburuan. Iazko urte hasieran Renoko Unibertsitateko Euskal Ikasketen Zentroan (Nevada, AEBak) egindako egonaldia batean suertatu zitzaion aukera. Hara joandako gutzietan eskola ordu bat emateko eskatu ohi diete, eta Air Pyrénéesi buruz hitz egiteko baliatu zuen aukera Etxanizek. Zentrotako arduradunari, Xabier Irujori, interesgarri iruditu eta informazio guzti hura liburu batean argitaratzeko aukera eskaini zion. Uruguagiko Euskal Herria argitaletxeak argitaratu dio.

- AINARA ARGOTIA -



“Gerra garaiko bizitza erraztu zuen ‘Air Pyrénées aire konpainiak’”

◆ Zerk bultzatu zintuen liburu hau idaztera?

Tesia idazten ari nintzela izan nuen Air Pyrénéesen berri. 29ko krisiari buruzko tesia egin dut, eta aztertu dut krisi egoera hartan nola erabili zituzten herri-lanak hemen, langabeziari aurre egiteko eta sektore jakin batzuk aktibatuzeko. Bigarren Errepublikaren garaia aztertu nuen lehen-dabizi eta gero sartu nintzen aztertzerako gerra testuingurua. Jakin nahi nuen Euzkadiko Gobernuak zer egin zuen herri-lanekin eta Errepublika garaian sortutako kolokazio bulegoekin, normaltasuna mantentzeko. Eta Lamiakoko eta Sondikako aireportuan egin zituzten herri-lanen gaineko informazioa aztertzen ari nintzela agertu zitzaidan Air Pyrénées-en lehen aipamena: frantziar batek Tomas Bilbao Eusko Jaurlaritzarako Herri Lanen zuzendari orokorrari idatzitako gutuna. Deigarria egin zitzaidan, ordura arte sekula entzun gabea nuelako aire konpainia hura, eta informazio gehiagoren bila ekin nion. Halaxe, hamaika foro eta bazterretan begiratuta Air Pyrénéesen istripu baten berri izan nuen eta Euzkadiko Artxibo His-

torikoan topatu nituen gero dokumentuz betetako lau kaxa, gerra sasoiaren Jaurlaritzaren dokumentazio guztiarekin batera Frantziara hara-hona ibili zirenak. Lau kaxa horietan dago Air Pyrénées aire konpainiaren gaineko informazio guztia.

◆ Zertarako sortu zuten Air Pyrénées?

Harreman komertzialak mantendu ahal izateko sortu zuten, gerra testuinguruan. Gerra hasita, Euzkadi blokeatuta eta isolatuta gelditu zen, euskal gobernukoek airez edo itsasoz baino ezin zutelarik harremanik izan Errepublikaren esku zeuden eremuekin eta Frantziarekin [Frantziara zabaldu zituen ordezkariak Euzkadiko Gobernuak]. Berehala konturatu ziren lehengaiak eta baliabideak lortzeko eta kanpo-harremanak landu eta finantziario iturriak eskuratzeko arazoak zituztela, bai eta gobernuko goi-kargudunek Frantziara edo Errepublikako hiriburura, bidaiatzeko ere. Orduan, Manuel de Irujo jeltzaleak

eta Errepublikako gobernuan sailik gabeko ministro zenak zerbait egin beharra zegoela ohartarazi zion Euzkadiko Gobernuari. Halaxe, 1936ko urriaren 21ean erabaki zuen Euzkadiko Gobernuak Bilbo-Baiona arteko zerbitzu erregular bat sortzea, geroago Okzitaniako Tolosaraino ere hegan egingo duena. Izan ere, Tolosakoa aireportu garrantzitsua zen, handik aireratzen zirelako Air France konpainiaren hegazkin asko eta handik Europa osora bidaiak zitekeelako. Ordu-rako, Jose Yanguas izeneko pilotu asturiar bat [Gero Air Pyrénées-en pilotu izango zena] kontratatua zuen Euzkadiko Gobernuak armak eta kontrabandoko materiala airez garraiatzeko. Legezkoa ez zen guztia berak garraiatzen zuen, Jaurlaritzak berak propio erosi zion hegazkinean, eta posta, merkantzia arrunta eta bidaiariak Air Pyrénéesen hegazkinen bidez garraiatzen zituzten.

◆ **Nolakoa izan zen sorrera?**

Sorrera korapilatsua izan zuen konpainiak, garaia ere halakoxea zelako. Demokrazien eta diktaduren artean tentsio handiko garaiak bizi ziren Europan. Hemen, Francoren tropak traba handirik gabe ari ziren aurrera egiten, eta gainera, gerra zibila nazioarteko arazo handiagoa bihurtu ez zedin Frantzia eta Erresuma Batuen ekimenez sortutako Ez Esku-Hartzeko batzordeak ezarritako kontrol neurri zorrotzei egin behar zieten aurre Errepublikak zaleek [Erresuma Batuak eta Frantziak bultzatutako batzorde horren helburua Espainiar estatuak bizi zuen likar armatuan eman zitekeen kanpo irtebentzia saihestea izan zen]. Testuinguru horretan, Justo Somonte Iturrioz eta Ildelfonso Irala izeneko bi gizon Baionako kontsularekin, Pedro Lekuona elgoibartarrarekin, jarri ziren harremanetan, konpainia sortzeko tramiteak azkartu eta zerbitzua abiatzeko berme guztiak lortzeko. Air Cote d'Argent izenarekin sortu zuten konpainia 1936ko azaroaren 18an. Pierre Cotek, Frantziako III. Errepublikako Aire eta Merkataritza ministroak, Leon Blumen gobernu sozialistako kideak, berehala eman zuen konpainia sortzeko argi berdea, besteak beste ez zegoelako ados gerra zibila nazioarteko arazo bihurtu ez zedin Frantziaren beraren ekimenez sortu zen batzordeak sinatutako tratatua jasotakoarekin. Hala ere, ez zuen nahi ez espainiarrek ezta italiar edo alemaniarrek Frantzia konpainiarekin lotu zezaten, ez baitzuen arazorik nahi, eta horregatik, izena aldatu arazi zion konpainiari, bere abizenarekin bat zetorrelako izena. Halaxe, Air Pyrénées izenez baitaiatu zuten konpainia, abenduaren 30ean.

◆ **1937ko otsailaren 4ra arte, baina, ez zuen Air Pyrénéesek aineratzeko baimeirik lortu. Zergatik?**

Ez, ez zuen hasiera erraza izan, Frantziako Gobernuan ere denek ez zutelako begi onez ikusten. Pierre Cote, Aire eta Merkataritza ministroa, tratatua aplikatzearen kontra zegoen, baina Yvon Delbos Kanpo Harremanetarako ministroa, alde,

eta tratatu horretan ezarritako kontrol neurriak baliatzen zituen Air Pyrénéesek aineratzeko baimenik ez emateko. Tirabira handiak izan ziren bien artean, eta Air Pyrénéesen arduradunek hainbat neurri bete behar izan zituzten, proiektuak aurrera egingo bazuen. Hasteko, konpainia ezin zen espainiar nazionalitatea zuen inoren esku egon, eta horregatik, Ildelfonso Iralak konpainia laga behar izan zuen eta bere parte Augusto Amestoy konfiantzazko lagun eta anaikide politikoaren izenean erregistratu behar izan zuen. Aurrerantzean beraz, langile eta arduradun guztiak frantziarrak izango ziren eta bulegoa ere Baionan izango zuen Air Pyrénéesek. Itxura batean, konpainia frantziarra zen oso-osoan, baina egiaz beste gauza bat zen.

“Itxura batean aire konpainia frantsesa zen oso-osoan Air Pyrénées, baina egiaz beste gauza bat zen”

◆ **Konpainia sortzeko hasierako pausotan elgoibartar bat aipatu duzu: Pedro Lekuona. Nor zen?**

Abokatua, diplomatikoa eta idazlea izan zen Lekuona eta 36ko uztailan, gerra hasi zenean, Espainiako Errepublikaren Baionako kontsula izatea onartu zuen. 1938ko martxoaren 9a arte izan zuen kargu hori. Gero Bordelera leku aldatu zutelako eta handik Washingtonera ondoren. Wasghintonen harrapatu zuen gerraren azkenak eta 1955ean hil zen, sanbartolome egunez.

◆ **Esan dugu traba diplomatikoak izan zituela Air Pyrénées-ek, baina prentsak ere ez zion lagundu.**

Frankisten aldeko prentsa kontra izan zuen hasieratik Air Pyrénéesek. Falangea eta Jonsen egunkarietako batek, *Imperio*-k, mehatxu garbia argitaratu zuen eta ohartarazi zuen eginahalak egingo zituztela aireko haien kontra. Hegazkin haieran ez bidaiatzeko ohartarazi zuten,

denak botako zituztela-eta.

◆ **Izen-abizen frantsesak izatea eta aireko denak Frantziaren erregistratuta izatea ez zuen nahikoa babes izan Air Pyrénéesek, orduan?**

Ez. Prentsa frankistak argi zeukan mailajea baino ez zela hori, eta Frantziako Gobernuak berak ere bazekien baina dena legezkoa balitz bezala jokatu zuen. Nolanahi ere, errazik ez zuen izan, ez, Air Pyrénéesek. Txibatazoak, erasoak... denetarik jasan izan zuen, hasiera-hasieratik. Lehenengo hegaldia martxoaren 1ean egiteko zuen konpainiak, baina txibatazo batek eragotzi zuen [aurrez beste data bat zehaztua zuten. Leopold Galy pilotua Potez 58 motor bakarreko airekoarekin aineratzeko zen 1937ko otsailaren 11n, baina azkenean erabaki zuten gerran zegoen lurraldea ezin zela ezaugarri horietako aireko batean gurutzatu eta atzeratu egin zuten]. Galy pilotuak Portsmoutheko fabrikara bidaiatu zuen Airspeed Envoy III etxeko airekoaren bila, baina han zegoela Erresuma Batuko Merkataritza Ganberak alto eman zion, konpainia horren kontrako salaketa jasoa zuelako aurrez [Konpainiak apirilaren 17an hasi zituen azkenean Bilborako hegaldiak]. Geroago, maiatzean, frankisten aireko batek botatuko bomba bat lehertu zen Sondikako aireportuan, Air Pyrénéesen hegazkin batek lur hartu zuen lekutik bost metro eskasera, eta eraso gehiagoren beldur, laredoko hondartza erabiltzen hasi ziren aineratzeetarako eta lurreratzeetarako. Galyk pilotatutako hegazkin baten kontra ere egin zuten urte hartako maiatzean faxisten ehiza hegazkinak, eta larrialdiz lurreratu behar izan zuen Galy Sopelanan. Uste da Mijail Kontsov kazetari komunistaren etorreraren berri eman ziela norbaitek espioi frankistei, Koltsov [Stalinen gizona Madrilan, 36ko gerrak iraun zuen denboran] Baionara iritsia zelako, ustez handik Bilbora bidaiatzeko. Hala, Galy Baionatik abiatu zenean abisua jaso zuten espioiek. Koltsov, baina, berandu iritsi zen Air Pyrénéesen Baionako bulegora eta ez zuen hegaldia hartzetik izan.

♦ **Koltsoven kontrako atentatu ahalegina izan zen hortaz. Zertara zetorren Koltsov?**

Bilbo inguruko frontea edo defentsa le-
rroa ikustera zetorren, eta haren kontrako
atentatu saiakera bat baino gehiago egin
zituztela usten, baina %100ean ezin da
ziurtatu. Baina berak ez zuen etsi. Okzi-
taniako Tolosan zela Abel Guidez pilotua-
rekin jarri zen harremanetan, eta
Guidezek ordezkatu zuen Galy, ordurako
hark esana zuelako ez zuela gehiago he-
gazkinik pilotatutako babesgabetasun har-
tan. Bata zein bestea pilotu militarrek
ziren, trebezia eta eskarmentu handikoak.
[Condor legioko ehiza hegazkin batek
egindako erasoan hil zen Guidez,
1937ko irailaren 7an]

♦ **Edozeinek bidaia zezakeen Air Pyrénéesen hegazkin batean?**

Bai, berez bai. 600 franko balio zuen
joan-etorriko txartelak eta bidaiari bakoit-
zak 10 kilo arte garraiatu zitzaizkeen.

♦ **Zer egin zaizu kontu guzti honetan deigarrien?**

Batetik, pilotuek erakutsitako ausar-
dia. Gehienak pilotu militarrek ziren edo
militarrak izandakoak, eta oso trebeak
ziren. Air France konpainiako flota zu-
zendaria oso inplikaturik egon zen Air Py-
rénéesen sorreran eta uste da hark
lagundu zuela pilotu trebe haiek topa-

tzen. Bestetik, deigarria da Euzkadiko
Gobernuak nola bete zuen Frantziari
emandako hitza. Oso-osoan errespetatu
zuen Frantziako Gobernuarekin eta Leon
Blumen gabinetarekin sinatutako akor-
dioa, Air Pyrénéesen hegazkinak sekula
ez zituztelako erabili armak edo kontra-
bandoko materiala garraiatzeko. Horre-
tarako Yanguasen hegazkina baliatzen
zuten. Bazekiten ondo akordioa haustea
primerako aitzakia izango zitzaiela fran-
tziarrei konpainia legez kanpo uzteko,
beraiek baimendutakoa izanda ere arris-
kutsuegia zitzaielako, faxisten beldur bai-
tziren.

♦ **Yanguas aipatu duzu. Euzkadiko Go-
bernuak konfiantza osoa jarri zuen ha-
rengan eta zeregin arriskutsuena eman
zion, baina ardi itxurako otsoa suertatu
zen Yanguas.**

Bai. Yanguas asturiarra zen sortzez eta
Bilboko Aero Clubeko partaidea zen. Jaur-
laritzak berak erosi zion hegazkina ere eta
armak ez ezik Jaurlaritzako goi-karguak
hara hona eramaten ibili zen. Gerra zibi-
laren hastapenetan, borroka batzuetan
ere parte hartu zuen Araban, eta gerran,
pertsonalitate ugari eraman zituen batetik
bestera. 1937an zehar interes handia
erakutsi zuen Jose Antonio Agirre lehenda-
karia bera eramateko. 1937ko ekainean,
botika eta material kirurgiko bila Frantziara

joana zen Alfredo Espinosa Euzkadiko
Gobernuko Osasun Kontseilaria Laredo-
raino ekartzea onartu zuen Yanguasek. Bi-
dean, hegazkinaren motoreetako bat
hondatu zitzaiola esan zien Yanguasek bi-
daiariei eta Zararuzko hondartzan lurre-
ratu zuen, frankisten esku zeuden lurretan.
Bidaiariak Gasteizera eraman zituzten
preso. Haietako bi, Espinosa eta Jose Agi-
rre kapitaina, fusilatu egin zituzten. Galyk
esana zuen aurrez frankistek behin baino
gehiagotan agindu izan ziotela dirua be-
rari, traizioaren truke, baina sekula ez
zuen onartu. Yanguasek bai, ordea.

♦ **Esan daiteke Air Pyrénéés konpainia
izan zela euskal errepublika ziurtatzeko
egon zen bitarteko behinena?**

Horrenbeste ez nuke esango, Errepu-
blikak oso mugatua zuelako bizirautea,
baina eguneroko bizitza errazten lagundu
zuen, bai.

♦ **Lehendakariak ere bidaiatu al zuen
konpainiarekin?**

Hegaldiren bat hartu zuen, baina le-
hendakariak Georges Lebeau pilotuaren
Negus hegazkina erabili zuen bere
joan-etorrietan. Lehendakariaren hegaz-
kinak ez zuen Air Pyrénéésentzako
hegan egin, baina Ez Esku Hartzeko tra-
tatu sailheste aldera, Negus ere Air Py-
rénéés konpainiako hegazkintzat
erregistratu zuten.



Leopold Galy-k pilotatutako hegazkina, frankisten erasoengandik ihesi Sopelanan lurreratu behar izan zeneko argazkia.

MIKEL LASKURAIN

AKTOREA

El último tren a Treblinka antzezlanaren taularatuko du gaur iluntzean Vaiven konpainiak Elgoibarko Herriko Antzokian. 1942an girotuta dago obra, Bigarren Mundu Gerraren erdian, Varsobiako umezurtztegi batean. Juduak dira ume guztiak, eta etorkizun beltza daukate. Janusz Korczak mediku eta pedagogoko prestatuko ditu ume horiek heriotzerako. Bederatzi aktorek osatzen dute taldea, eta Mikel Laskurain (Bergara, 1965) da horietako bat. 20:30ean hasiko da emanaldia, eta sarrerak lehiatilan bertan erosteko aukera egongo da.

- AINHOA ANDONEGI -



“Inor ez da damutuko obra hau ikustera joan izanaz”

♦ *El último tren a Treblinka* taularatuko duzue gaur, Elgoibarren. Zertan datza?

1942an girotuta dago, Bigarren Mundu Gerraren erdian. Varsobiako umezurtztegi batean 200 ume daude, eta haien buru Janusz Korczak doktore eta pedagogoa. Bere garairarako oso aurreratu zen Korczak. Hemen ez da asko ezagutzen, baina Europa iparraldean oso ezagunak dira bere filosofia eta ideiak. Errepublikan moduko bat sortu zuen umekin, eta umeren batek zerbitu gaizki egiten zuenean denen artean epaitzen zuten, zigorra ezartzeko. Judutarrak ziren umeak, eta Alemaniako Nazien menpe zeuden. Beraiek jakitun ez izan arren, Korczak-ek bazekien etorkizun beltza zutela, eta heriotzerako prestatu zituen. Antzezlan bat prestatu zuten, eta protagonista hil egiten da. Modu duin baten heriotzari aurre egiten erakutsi nahi izan ziren. Benetako gertaeretan oinarrituta dago obra.

♦ Korczak-ek esana da errazena ideia baten alde hiltzea dela; zaila ideia baten alde bizitzea dela.

Bai, horixe esan ziren umeei Treblinka-rako tren hartu zuten egunean. Zailena

egina zutela, ideia baten alde bizi izan zirela, eta orain, errazena geratzen zitzaiela: heriotza. Esaten dutenez umeek pozik hartu zuten tren eta kantuan joan ziren.

♦ Antzezlan dramatikoak dirudi. Ikusleak prestatuta daude horrelako lanetarako ala umore bila joaten dira aretoetara?

Egia da jendeak umorea bilatzen duela antzerkian, eta dramak perezaz apur bat ematen duela. Emozionatu egingo dela jakiteak atzera egiten dio jende askori, baina behin obra ikusten ari direla emozioz gustatu egiten zaie, emozioa sorpresaz iristea gauza polita da. Ikusleak obrako protagonista bihurtzen ditugu gainera, eta hori ere oso originala da. Eszenatokian bertan egoteko aukera izango dute batzuek, eta horrek antzezlanaren barru barrutik bizitzeko aukera ematen du. Inor ez da damutuko obra hau ikustera joan izanaz.

♦ Zuk zein paper daukazu?

Bi paper egiten ditut. Batetik, naziekin kolaboratzen duen judutar baten papera egiten dut. Presiopean bizi da,

naziek mehatxatuta dute eta berak egiten ditu heriotzera bidaltzeko judutarren zerrendak. Atsekabean bizi da gizona, kontraesanez betea, eta aitzaki bezala erabiltzen du pertsona garrantzitsuak libratzeko aukera daukala. Korczak berari eskainiko dio libratzeko aukera, baina hark ezetz erantzun dio, ezingo lukeela bizitzen jarraitu 200 ume erraustegira bidali ostean. Beste papera Gestapoko polizia batena da. Pertsonaia hau heriotzarekin irudikatzen dut nik. Gizon hotza da, bihotzgabea eta berak bidaltzen ditu judutarrak erraustegira. Bi papela desberdin egiten ditut.

♦ Leku askotan estreinatu duzue obra. Nolako harrera izan du?

Oso ona. Parisen ere izan ginen eta sari bat ere eman ziguten. Espainia osoan zehar ibili gara, eta Kanariar Uharteetara ere joatekoak gara. Toledon ere sari bat jasotzeko izendatuta gaude, eta oso pozik gaude. 200 emanalditik gora egin ditugu. Bederatzi aktorek osatzen dugu taldea, eta asko aktore gazteak dira. Ikusleei hori gustatzen zaie. Espero dugu Elgoibarren ere jendeak ondo erantzutea.

Joseba Olazabal mendaroarraren protesta Bilboko Gizazinea programan aurkeztu dute




Caostika elkarteak antolatutako Gizazinea programaren barruan proiektatu zuten zapatuan Joseba Olazabal mendaroarrak hasitako protestaren harira Egin Oihukoek grabatutako dokumental laburra. Ikus-entzunezkoen kulturaren erreferente bihurtu da Gizazinea jaialdia, zeinean gizarte errealitate eta arazo desberdinetara hurbiltzeko aukera eskaintzen dieten ikus-entzuleei, eta gai askoren artean A8 autobideko trafikoa sortzen duen zarataren inguruan ere hausnartu dute oraingoan. Zapatu arratsaldean proiektatu zuten Egin Oihuk grabatutako reportaje laburra Bilborock aretoan, eta ondoren, azalpenak eman zituzten Markel Suarez reportajearen zuzendariak eta Joseba Olazabalek berak. Ikus-entzunezko honek 61.000 ikus-taldi izan ditu dagoeneko.

'Gizakia koloretan' erakusketa zabalduko du gaur Pilar Herrero Sokobéhèrena artista elgoibartarrak

Etnia ezberdinetako emakumeen erretratuez osatutako erakusketa zabalduko du gaur Elgoibarko Kultur Etxean Pilar Herrero Sokobéhèrena artistak, Haizea Emakume Taldeak eta Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailak antolatuta. Hilaren 28ra arte egongo da zabalik, astelehenetik zapatuta, 18:30etik 20:30era. Gaur, gainera, bisita gidatua ere emango du Herrerok, 19:00etan.

Pilar Herrero Donostian jaio zen, baina Elgoibarren bizi izan da 32 urtean baino gehiagoan. Duela bost bat urte hasi zen margotzen, Zarautzen. Oleoa, akuarela, pastela eta akriliko erabiltzen ditu, eta hainbat erakusketa egin ditu, bakarka zein taldeka, Aian, Usurbilen eta Zarautzen.



Vulk taldeak kontzertua emango du gaur Kultur Etxeko Sotoan

Sinüosek antolatuta, Vulk taldeak kontzertua emango du gaur Elgoibarko Kultur Etxeko Sotoan, 23:00etan hasita. Bilboko talde gaztea da Vulk, Ingalaterrako post-punk-etik zuzenean edaten duena, bai estiloan eta bai jarrean. Joy Division gogorarazi dezake, baina haien irmotasuna eta iluntasuna duelako ardatz, baina Vulk harago doa. *Ground For Dogs* euren bigarren lana argitaratuta, kontzertuz kontzertu dabil-tza orain. Primavera Sound, Ebrovision eta Psych Fest jaialdie-tan ere jo dute.

'Los futbolísimos' filma emango dute domekan Mendaron

Los futbolísimos filma emango dute domekan Mendaroko San Agustin aretoan, 16:30ean, Zubigaztek antolatuta. Miguel Angel Lamatak zuzendutako filma da eta gazte kuadrilla baten inguruko abenturen ingurukoa da. Roberto Santiagoren *El misterio de los árbitros dormidos* liburuan oinarritutako filma da.

'Desconocidos' filma eta 'Goazen' antzezlanak izan ziren 2018an Elgoibarko Herriko Antzokiko emanaldirik ikusienak

Herriko Antzokian eman dituzten filmeek, antzerkiek eta musika emanaldiek 2018an izan dituzten audientzien berri eman du Elgoibarko Udaleko Kultura Sailak. Guztira, 17.148 ikusle izan ziren 2018an Herriko Antzokian, 2017an baino 767 ikusle gehiago (%4,5 gehiago).

Zine emanaldiek batu zuten ikusle gehien: 10.510 guztira (2017an, 9.227 izan ziren). Ikuskizun eszenikoak ikustera 3.726 lagun joan ziren iaz, 2.800 lagun Udal Musika Bandak hilean behin eman zituen kontzertuetara (2017an, 3.089) eta 112 ikusle izan zituzten aurrez grabatutako formatoan eman zituzten ikuskizunek (2017an, 294). Filmeen artean, *Desconocidos* eta *Campeones* izan ziren arrakastatsuenak. Ikuskizun eszenikoei dagokionez, umeentzako bi emanaldi izan ziren arrakastatsuenak: *Goazen 5.0* eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots



pailazoen *Musua* ikuskizuna. Nagusientzako antzezlanetan Yllana konpainiak otsailean eman zuen *The Primitives* antzezlanak batu zuen ikusle gehien. Datuon harira, balorazio positiboa egin du Udalak eta pozik agertu da ikusle kopuruan goranzko joera igarri duelako.

Jairo Berbelen 'Raid Pandemonium' eta 'Grande cuore Ibai' lanak Elgoibarren emango dituzte martxoan

Izaera solidarioa duten bi lan dira *Raid Pandemonium* eta *Grande cuore Ibai*. Bi dokumentalok Eibarren estreinatu zituen Jairo Berbel elgoibartarrak iazko urrian, eta martxoaren 10ean, Elgoibarren emango dituzte, Herriko Antzokian (12:30). Marokon egindako automobil lasterketa solidarioa erakusten du lehenengoak, *Raid Pandemonium*-ek, eta Allan Herndon-Dudley izeneko gaixotasun arraroa duen Ibai ume eibartarraren amets eta ilusioak islatzen ditu bigarrenak.

Bi dokumentalen emanaldiarekin batera, *Pacientes sin clínica* izeneko



taldeak emanaldia emango du Herriko Antzokian. Rap musika egiten dute *Paciente sin clínica* taldekoek eta *granadarrak* dira. Bi dokumentalak eta musika emanaldia ikusteko sarre-rak 2 euroan jarri dituzte salgai eta

diru hori diagnostiko gabeko gaixotasunak dituzten Eibarko umeen elkarterari (AFESD) emango diotela jakinarazi dute antolatzaileek. Bi dokumentalen aurrerapenak ikusteko: www.barren.eus.

Otsailaren 19an hasiko dira memoria eta transmisioa lantzeko Bizikidetza Jardunaldiak

Elgoibarko Udalak eta Herritarren Bizikidetza Taldeak bakeaz eta bizikidetzaz hausnartzeko jardunaldiak antolatu dituzte, eta aurten, memoria eta transmisioa landuko dituzte. Otsailaren 19an izango da lehenengo emanaldia: *Bizimiñak* antzezlanak eskainiko du Itzel konpainiak. Itziar Eliasek, Maddi Irazokik eta Dani Irazokik antzerkia, pintura eta musika nahastuko dituzte urte luzez bizitako minaz eta haren bueltan dabilzan gaiez hitz egiteko. 19:00etan izango da, Kultur Etxeko sotoan. Otsailaren, 26an, bestalde, gazteria, transmisioa eta memoria izango dituzte hizketagai Leire Ostiza Mugicak (Zientzia Politiko eta Zuzenbidean graduatua, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko Bake eta Bizikidetza teknikaria) eta Iker Usonek (Gizarte langilea eta bakegintzan espezializatua). Azkenik, martxoaren 6an, gertuko nahiz urruneko historia egunkarietako biñetetan nola jaso den azalduko dute Txema Uriarte historialariak eta Edorta Arana EHUko irakasleak.

Nerea Sasiain txapelkun izan da pista estaliko Euskadiko atletismo txapelketan

Euskadiko pista estaliko atletismo txapelketa, senior mailakoa, jokatu zuten aurreko asteburuan Anoetako Belodromoan, Donostian. Nerea Sasiain Uranga 400 metroko lasterketan lehiatu zen, eta urrea irabazteaz gainera, denboraldiko markarik onena ezarri zuen 57 segundo eta 13 ehuneko denborarekin (Pista estalian 56.77 da Sasiainen marka pertsonala eta 56.22 aire librean). Sasiainek segundo bat baino gehiagoko aldea atera zion finalean bigarren egin zuen Anne Susori (58.35). Alde handia da hori distantzia honetako lasterketetan. Kerry Lyoha sailkatu zen hirugarren postuan (58.41). Joan den urtarilean Gipuzkoako txapelketa ere irabazi zuen Sasiainek, 400 metrokoan (58.74), eta txapelkunorde gelditu zen 200 metroko lasterketan. Donostian eginiko markak aukera emango dio 20 urtez azpikoen Espainiako txapelketan lehiatzeko. Martxoaren 2an eta 3an jokatu da Madrilén pista estaliko denboraldiari amaiera emango dion txapelketa. Iaz lortu zuen laugarren postua hobetzea da



bere helburua. Ander Armendia atleta elgoibartarrak ere hartu zuen parte Euskadiko txapelketan. Armendia 200 metroko lasterketan lehiatu zen eta finalerdietako kanporaketan 23:78ko denbora eginda ez zen finalerako sailkatu. Pista estaliko 20 urtez azpikoen Espainiako Txapelketan lehiatzea da Armendiaren helburua, baina gutxieneko marka lortu behar du

horretarako. 20 urtez azpiko Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan saiatu behar du gutxieneko marka lortzen, aste-buru honetan eta hurrengoan, hurrenez hurren. Mintxeta Atletismo Taldeko hainbat atleta lehiatuko dira aipaturiko bi txapelketetan: Andoni Orio, Maialen Izagirre, Cristina Marcos eta Zakariae el Hachmi.

Iraitz Fernandez argazkiak jaso du Publikoaren Saria, Gaztelekuak Instagramen egindako lehiaketan

Iraitz Fernandez argazkiak jaso du Publikoaren Saria Gaztelekuak antolatutako Juan Mugertza Krosa Instagram lehiaketan. Guztira, 13 eta 18 urte arteko nerabeek egindako 51 lan aurkeztu ziren lehiaketarako, eta lan guztiekin erakusketa osatu zuten gero Gaztelekuan. Bi sari izan dira: Iraitz Fernandezek jaso duen Publikoaren Saria eta Sari Nagusia, urtarrilaren 24an, Nerea Artetxek jaso zuena. Artetxek 150 euro jaso zituen, eta Fernandezek, 100 euro.



Elgoibarko Itzulia 10 orduan egiteko ekimena sustatuko du Morkaikok

S ukaldaritzan *slow food* mugimendua dagoen moduan, mendian ere lasaiago eta patxada handiagoz ibiltzeko ekimena sortu du Morkaiko Mendizale Elkarteak: Elgoibako Mendi Itzulia hamar orduan egitea. "Azken urteetan, mendi-itzulia



gero eta azkarrago egiteko joera du jendeak, eta aukera horren aurka ezer ez dugun arren, mendian lasaiago ibiltzeko aukera ere sustatu nahi dugu", azaldu dute Morkaikotik ekimen berri honen harira. Maiatzaren 11n Morkaikoren Egunaren barruan egingo den Elgoibarko Mendi Itzulia "modu lasaiagoan" egin nahi duen jendea animatu nahi dute parte hartzera. Morkaikokoek erbi lanak egingo dituen lagun bat jarriko dute, eta hark markatuko du itzulia hamar orduan egiteko erritmoa eta pausoa. 6:00etan Kalegoen plazatik irten eta 16:00etarako itzulia amaitzea da euren asmoa.

Iban Gonzalez txirrindulariak seigarren postu batekin hasi du denboraldia

Master mailako txirrindulariek Laudion hasi zuten denboraldia, otsailaren 9an. Master 30, 40, 50 eta elite mailakoak lehiatu ziren laudioko XI. Master Klasikoan. 78 kilometroko ibilbidea osatu zuten eta David Busto (Elorrioko Banan Banan) izan zen azkarrena (41,69 kilometro orduko batez-bestekoa) sailkapen nagusian eta bere mailan (Master 30). Maila horretan lehiatu zen Iban Gonzalez elgoibartarra. Seigarren postuan sartu zen helmugan Gobike taldeko kidea eta hirugarren postua lortu zuen bere mailan. Beste bi txirrindulari elgoibartar ere lehiatu ziren laudioko proban. Ramon Garcia (Bodegas Mazuela-Roger) eta Iñigo Lariz (Gobike).



Emaitzak

FUTBOLA

Anaitasuna 1 – Haundi 0 (Ohorezko erreg.)
Eibartarrak 2 – Elgoibar 3 (1. erreg.)
Elgoibar 3 – Aloña Mendi 1 (Oho. jub.)
Elgoibar 2 – Hernani 2 (Jub. 1. maila)
Elgoibar 0 – Zarautz 2 (Oho. kad.)
Aizkorri 2 – Elgoibar 1 (Kad. 1. maila)
Beasain 4 – Elgoibar 0 (Oho- inf.)
Elgoibar 2 – Eibartarrak 1 (Inf. 1. maila)

ESKUBALOIA

Errotabarri 10 – Lauko 19 (Senior emak.)
Egia 25 – Alcorta F.G. 28 (Senior giz.)
Pizzeria Salento 13 – Urnieta 22 (Sen. giz.)
Gaurve 26 – BM Conet Miranda 12 (Sen. giz.)
Astigarraga GYS 28 – Tximista Pulpo 27 (Jub. nsk.)
Deca Elg. 26 – Bidasoa Irun 24 (Jub. mut.)
Urnieta 13 – Arilan Elg. 21 (Jub. nesk.)
Egia 35 – Beristain Elg. 28 (Jub. mut.)
Salento Gelati Elg. 26 – Basauri 25 (Kad. nesk.)
Tolosa 33 – Urkunde Elg. 15 (Kad. mut.)
Neurri Elg. 21 – C. Baskongadas 29 (Kad. nesk.)
Aiala 18 – Tecnifuelle Elg. 19 (Kad. nesk.)
Bankoa Elg. 27 – Urola 18 (Kad. mut.)
Karakate Jatetxea Elg. 20 – Bidasoa 30 (Kad. mut.)
Cimde Elg. 22 – Dario Elg. 21 (Inf. nesk.)
Zubacor Elg. 23 – Zarautz 11 (Inf. mut.)
Bacalaos Alcorta 12 – Pneumax Elg. 14 (Inf. nesk.)
Aloña Mendi 12 – Elgoibarko Sanlo A 14 (Ale. nsk.)

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 16
09:30 Elgoibar – Iintxa (Infantil Txiki)
11:15 Elgoibar – Aretxabaleta (Oho. inf.)
13:00 Elgoibar – Oiartzun A (Kad. 1. maila)
16:30 Haundi – Alerru
18:30 Elgoibar – Ordizia (1. erreg.)
Domeka, 17
09:30 Elgoibar – Aloña Mendi (Futbol Eskola 2009)
10:30 Elgoibar – Aloña Mendi (Futbol Eskola 2009)
11:45 Elgoibar – Iintxa (Futbol Eskola neskek aleb.)
11:45 Elgoibar – Orioko (Futbol Eskola neskek benj.)

ESKUBALOIA (Olaizaga Kiroldegian)

Zapatua, 16
10:00 Tecnifuelle – Pulpo (Kad. nesk.)
11:30 Arilan – Eibar Esk. (Jub. nesk.)
13:00 Gaurve – Urnieta (Sen. giz.)
16:00 Neurri – Legazpi (Kad. nesk.)
17:45 Beristain – Eibar (Jub. mut.)
19:30 Alcorta F.G. – Uharte (Sen. giz.)
Domeka, 17
10:00 Salento Gelati – Bera Bera (Kad. nesk.)
11:30 Lauko – Eraiken Eharialde (Sen. emak.)
13:00 Dario – Egia (Inf. nesk.)

ESKUBALOIA (IMH Kiroldegian)

Domeka, 17
11:00 Pneumax – Aiala (Inf. nesk.)

Gare irratizaleen taldeak bat egin du Europako Kirol Herri izendapenarekin

Elgoibar Europako Kirolaren Herria dela jakinarazteko mezua zabalduko du uhinetan Elgoibarko GARE irratizaleen taldeak. Baimena eskuratu ostean, EG2ETS adierazgarria jarri dute airean. "Izendapena eta gure herria munduko irratizaleen artean ezagutzera ematea da gure asmoa", azaldu dute. Martxoaren 12ra bitartean zabalduko dituzte mezua. Egunero hiru bat irratizale dabilta mezua zabaltzen eta bakoitzak 160 kontaktu egin ditzake egun bakar batean.

LANA.....
Eskeraerak
 Eraikuntzan edo baserri lanetan egingo nuke lan. Esperientzia daukat. ☎ 602 405 707

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 602 405 039

Adinekoak zaintzeko prest nago, ospitalean ere bai. Garbiketa lanetarako ere prest nago. ☎ 631 987 624

Umeak zein nagusiak zaintzeko prest nago. Erreferentziak ditut. ☎ 631 959 435

Umeak zein nagusiak zaintzeko prest nago. ☎ 632 251 861

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Orduka edo etxeko langile moduan. Erreferentziak ditut. ☎ 632 501 003

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. ☎ 632 786 952

Lan bila nabil. Orduka edo etxeko langile moduan aritzeko prest nago. ☎ 632 737 903

Adinekoak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia. ☎ 644 602 818

Lan bila nabil. Baserri lanetan, ostalaritzan eta garbiketa lanetan esperientzia handia. Erreferentzia onak ditut. ☎ 631 680 819

Adinekoak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia eta erreferentziak ditut. ☎ 633 150 376

Adinekoak zainduko nituzke. Formazio eta esperientzia ditut. Titulu sozio-sanitariaria daukat. ☎ 671 989 434

Lan bila nabil. Esperientzia handia daukat ostalaritzan eta etxeko lanetan. ☎ 612 223 298

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. ☎ 605 598 999

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Orduka ere bai. ☎ 675 965 130

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan aritzeko prest nago. Esperientzia handia. ☎ 612 490 124

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka ere bai. ☎ 626 407 923

Zaintzaile euskalduna eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Tituluduna. ☎ 660511781 / 943 74 23 30

Adinekoak zainduko nituzke. ☎ 631 667 099

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 631 470 506

Ume zein nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 653 667 975

Umeak zein nagusiak zaintzeko prest nago. Asteburuetan ere bai. Erreferentzia onak. ☎ 636 517 025

Lanerako prest nago. Umeak eta adinekoak zaintzen esperientzia handia. ☎ 632 642 350

Garbiketarako egiteko edo adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 602 084 256

Umeak zein nagusiak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 631 145 986

Nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 631 724 921

Umeak zein nagusiak zaintzeko prest nago. ☎ 632 392 251

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka eta asteburuetan. ☎ 632 229 972

Ume zein nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 632 452 026

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka eta asteburuetan. ☎ 612 531 623

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Esperientzia handia. ☎ 616 457 254

Eskaintza
 Neska gazte eta euskalduna behar dugu, goizetan 7 urteko umea zaintzeko. (7:30-9:00). ☎ 646 571 984

Taxi lizentzia traspasatzen da jubilatzaileentzat. ☎ 669 895 592

BESTELAKOAK.....
 Lursail bat erosiko nuke mendian. ☎ 607 143 616

GARAJEAK.....
 Garaiea salgai erdigunean. Auto txiki baten baten edo motorrarentzat aproposa. ☎ 658 741 463

ETXEPE

Lan bereziak
 Grandes
 mecanizados

Fresadora edo mandrinadorarako langilea behar da.

Interesatuak, bidali zuen curriculumak produktibitate@etxepe.com helbidera.

◆ **Eskatzen da:**

- Lanerako zein ikasteko prestutasuna.
- Fagor edo Heidenhein kontrol numeriko ezagutza.
- Planoen ulermen ona.
- Mekanizatuaren esperientzia.

◆ **Eskaintzen da:**

- Luzera begirako lan proiektua.

administradores

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
 Euzko Enpleguaren Administrazioaren Erakunde Nazionala



ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679


rosapf@telefonica.net

Gure komunitatean, barne-patio bat daukagu, etx-jabeek bakarrik erabili dezakeguna. Patio horretara sarri eraikineko umeak sartzen dira jolastera. Komunitateko presidenteak, baina, ohar bat jarri du atean esanez patiora ezin dela sartu. Jakin nahiko nuke presidenteak egin dezakeen halakorik, gainerakooi galdetu gabe.

Komunitateko presidenteak jabeekideek batzarrean hartutako erabakiak betetzen eta beteazten ditu, baina egia da legeak ematen diola maniobrarako aukera ere. Hala ere, ez du eskumenik zuk diozuna egiteko, guztiz ekimen arbitrariora delako hori.

Izan daiteke presidenteak egin duen hori irtenbiderik egokiena, baina kasu horretan ere lehenengo batzarrerara eraman beharko luke gaia.

Aholkua: presidente baten eginbeharrak zehaztuta daude, eta hortik kanpoko edozer egin nahi badu, batzarrean proposatu beharko du lehendabizi, han eztabaidatu eta bozkatzeko.





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.




Zorionak zure 6. urtebetetzean. Muxu potolo bat etxeko denon partez. Gozatu eguna!



Zorionak, **Sare**, atzo 6 urte egin zenituelako. Muxuak, etxekoen partez.



Zorionak, **Miren**, igandean zure urtebetetzea delako. Egun polita pasa, neska handi! 9 belarri tirakada, bereziki, Ikerren eta Aneren partez.




Zorionak, **Roke**, zure 6. urtebetetzean! Mila muxu etxekoen, eta bereziki, Nora, Mar kel eta Lukaren partez.



Zorionak, **Jare**, asteazkenean 5 urte egin zenituelako. Familiakoan, eta bereziki, Oihan, Danel eta Izaroren partez.




Zorionak, **Erik**, 8 urte egin dituzulako. Etxekoen partez, muxu handi bat.



Zorionak, **Sara**, gaur urtetxo bat bete duzulako. Muxu asko etxekoen eta bereziki, Nuria eta Leireren partez.



Zorionak, **Danel**, atzo 4 urte egin zenituelako. Muxu handi bat etxekoen, eta bereziki, Aimarren partez.



Zorionak, **Luken**, urtetxo bat bete duzulako. Muxu handi bat familiakoan, eta bereziki, Telmoren partez.



Zorionak, **Sara**, gaur 7 urte egin dituzulako. Muxuak familiako guztien partez.



Zorionak, **Helena**, laster 7 urte! Mila muxu potolo etxekoen partez.



Zorionak, **Jakes**, 4 urte, astelehenean! Muxuak, etxekoen partez.



Zorionak, **bikote!** Iritsi da azkenean otsaila! Familiako guztien partez, muxu erraldoi bana.

Erretratu bakarrekogurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrekogurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Jon Aranao
Guillermo Torres

Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Astelehenek ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larribatak: 11:00 - 13:00

Reopaindegi zerbitzua daukagu.
Deitu ardua hartzen.

IKASBAI
AKADEMIA
IKASGO
ACADEMY

IKASBAI
AKADEMIA
KLASE PARTIKULARRAK

- LH
- DBH
- GAI GUZTIAK
- TALDE TXIKIAK
- EUSKARA ERREFORTZUA

667 261 248
(Leire)

Basarte 13, behea - Elgoibar
akademlaelgoibar@gmail.com

15 BARIXAKUA

18:30 Erakusketa: *Gizakia koloretan*. Haizea emakume taldeak eta Elgoibarko Berdintasun Sailak antolatuta, Kultur Etxean egongo da ikusgai hilaren 28ra arte.

20:30 Antzerkia: *Último tren a Treblinka*. Herriko Antzokian.

23:00 Kontzertua: *Vulk*. Sinüosek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

17 DOMEKA

9:30 Mendi irteera: Arnora. Morkaikok herriko ikastetxeekin antolatuta. Mintxetako aparkalekuan elkartuko dira.

11:00 Mindfulness saioa: Emozioak lantzeko tailerra Urko Arozena psikologo eta entrenatzaile mentalarekin. Musika eskolan.

16:30 Zine emanaldia: *Los futbolísimos*. Mendaroko San Agustin aretoan.

19 MARTITZENA

18:00 Literatura tailerra: *Guerra y paz*. Haizea emakume taldeak antolatuta, Udal Liburutegian.

19:00 Bizikidetzeta jardunaldiak. *Bizimiñak* antzerkia taularatuko du Itzel konpainiak. Kultur Etxeko sotoan.

21 EGUENA

19:00 Meditazio topaketa. Isiltasun Eskolak antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

22 BARIXAKUA

21:30 Bideo foruma: *La vida soñada de los ángeles*. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du saioa.

Zinea (Herriko Antzokian)

'La favorita'

16 zapatua: 19:00 / 22:15

17 domeka: 19:00

18 astelehena: 21:30



'Spiderman: un nuevo universo'

17 domeka: 16:30



Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida

aldaz
hortz klinikak
RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

RPS 271/12
ainhoa
fisioterapia
Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA EIUKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA
Toribio Etxebarria, 22
Elibar
Tel. 943 106 020
Mug. 677 551 850

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00


GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)			
15 BARIXAKUA	16 ZAPATUA	17 DOMEKA	18 ASTELEHENA	19 MARTITZENA	20 EGUAZTENA	21 EGUENA	22 BARIXAKUA
Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638


* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
Zulueta. San Agustin kalea, 5 (Eibar)
943 820 498



Carmen Vieitez Calviño

2019ko otsailaren 8an hil zen, 90 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida

Jeku
eder

hortz klinika

RPS 171/12

Elena Herrero Lobo

Aita Agirre Enparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

fisio&más

Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea



Trenbide kalea, 18
943 740 191 / 667 933 628
www.fisio-mas.com

RPS 112/18

RPS 183/12

Uzuri

optika audio

Elgoibar
Tel.: 943 740 359

Deba
Tel.: 943 192 192

FUB

R.P.S.: 32/17

Fernando
Urizar
Barandiaran

Medikuntzan doktorea
Psikiatrian espezialista
Psikoterapia psikoanalitikoa
Psikosomatika

Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)
Bailen kalea, 9, 1. ezk. (Bilbo)
furizar1@yahoo.com

615 715 404




► Iñaki Agirre hil da, Ongarri Zine Klubeko arduraduna

Ongarri Zine Klubaren arima izan da Iñaki Agirre, zinemaren “erudittoa”, zinezale amorratua. Ongarri Zine Klubaren sortzaileetako bat izan da, eta Elgoibarren Aire Libreko zinema sortu zuten laukotean ere ageri da bere izena, Andres Odrizola eta Arrate eta Iñaki San Martin neba-arrebekin batera. Zinemak bizi zuen, eta pasio horri emana bizi izan da azkenera arte. Hasiera-hasieratik, ahalegin berezia egin zuen beti Elgoibarrera zinema komertzialetik kanpoko filmak ekartzeko, ahal zen guztietan filmeen jatorrizko bertsioak errespetatuz. Zinemaren dibulgazioan ere aritu izan zen eta egiteko horretan aldizkari honen kolaboratzailea ere baguen. Martitzenean hil zen, 62 urte zituela, eta eguaztenean egin zioten azken agurra senide eta gertukoek Elgoibarko Tanatorio Etxeberrian.

Urteetako harremana izan du Blanca Salegi Elgoibarko Udaleko Kultura teknikariak Agirrerekin. Gizon “bihotzbera” eta “sentikorra” zela oroitu du Salegik; librea espirituz. “Burokraziatik, gatazketatik, ihes egiten zuen”, dio. “Buru pribilegiatua” zuela eta Zine Klubari emana bizi zela azpimarratu ditu Salegik. Lankidea zuen, “neke-laguna,” eta bai berak eta bai Elgoibarrek asko zor diela nabarmendu du, Iñakiren omenez idatzitako gutun sentituan.

Ongarri Zine Klubaren sorreran lankide eta lagun izan zuen Iñaki San Martin Soartek ere, eta hunkituta hitz egin du Agirretaz: “Kultur gizona izan da. Izugarri zekien zinemaz eta gorputz eta arima jardun da beti kulturaren alde lanean. Asko irakurtzen zuen eta gizon jakintsua zen, teoriko bat. Elgoibarko kulturagintzari egin dion ekarpena handia izan da. Ez zen protagonismo zalea. Estimaten nuen, eta gaur, nire zatitxo bat joan dela sentitzen dut”. Estimutan zuten Izaskun Estibariz eta Luciano Agirre *Lutxik* ere. Ongarri Argazkilari Taldetik zuen laguna batez ere Estibarizek eta zine klubean elkarrekin



egindako urteetan ezagutu zuen Lutxik. Agirreren zinezaletasuna nabarmendu dute biek, eta besteak beste, unean-unean pil-pilean zeuden gaiekin lotutako filmak ekartzeko eta gai horien inguruko gogoeta sustatzeko egindako ahalegina eskertu diote.

“Iñaki Agirre moduko bat izatea luxu bat izan da Elgoibarrentzat. Asko zor diogu”. Lutxik gogoratu du eginahalak egin zituela beti Elgoibarrek ahalik eta film eskaintza interesgarri eta zabalena izan zezan. “Gaur egun dena da errazagoa, baina hauek Ongarri Zine Kluba sortu zuten garaian, bai eta ondorengo urte askotan ere, eskaintza komertzialetik kanpoko filmak aukeratzen egin duten lana aintzat hartzekoa da.

“Arima librea” zen, “antisistema”, Estibarizen esanetan, eta bere izate horrek markatu zuen bere ibilbide osoa. “Bere-

zia izan da Iñaki. Zinemari eskaini dio bere bizia eta zinemarekiko maitasun soilagatik egin du egin duen guztia, modu altruistan. Eta egin duena asko eta ona izan da. Izaera kritikoa lantzeko bideak jarri ditu eta Elgoibarko kulturagintzari egin dion ekarpena izugarria izan da”, gaineratu du.

Duela bi urte inguru laga zuen Ongarri Zine Kluba Agirrek, osasun arazoengatik, eta Jokin Martinezek hartu zuen haren lekukoa. Gaur, lagun handi bat galdu duela dio Martinezek, “maisua” izateaz gainera, laguna ere bazuelako. “Zoragarria izan da Iñakirekin lan egitea. Atsegina eta gertukoa zen, eta gozamen hutsa zen harekin hitz egitea. Zinemarekiko zuen maitasuna transmititu digu eta asko ikasi dugu bere eskutik. Entziklopedia antzeko bat izan da Iñaki. Ni neu izugarri aberastu nau bera ezagutzeak”.



Julen Ansola

Irati Agirreazaldegi



Ume baten irribarreak zeini ez dio barretxo bat ateratzen ez-painetan? Hala gertatu zitzaidan niri, haurra ikusi nuenean, Julenen argazki honetan. Izan ere, gertatu ohi zen bezala garai bateko argazkietan, irudi honek positibotik eta negatibotik

izan dezake, benetan.

Irribarreak irudikatu ohi du esperantza eta neskatila kuku eginez dago belar artetik antza, hari deika ez ote dabilen, hori da nire zalantza.

Neska belar artean eta parean kamera, honi begiratzen dio egunero egingo balu antzera, baina bera ez da iritsiko esku artean oraingo kamera digitalen parekorik edukitzera.

Tanzanian hori, baina galdetu hemen edonori, baietz umeari, kamera aurrean irribarre faltsu bat egin orduko, buelta eman eta ezpainak erori.

Erosi, erosi... hori da umeez guraso, osaba-izeba zein aitona-ahonei maiz egin ohi dieten agurra, eta kasurik egin ezean, mu-

turra. Gure gizartea erabat kontsumista bihurtzen ari garen honetan, badirudi haurren gerra oihu horrek ez digula ematen beldurra.

Asko daukanak gehiago nahi; gutxi duenak daukanarekin pasa. Hori da errealitate eskasa, eta hala ere, jarraitzen dugu errealitate hori irudikatzen duen kamararen klik hotsa edo konpasa.

Batzuk zein besteak berriz ere ipiniko dira kameraren aurrean irribarrez zein muturtuta, gutxiarekin konformatzen denari barretxo bat ateratzeko dena duenari haserre aurpegia kentzeko baino gehiago behar duguta.

Urrun daudenek irribarrea eta poza azaldu arren aurpegietan, txirotasun iluna bidaide dute bizitza osoan, beraien txokorik argienetan. Baina begirada batzuen atzeko txokoetan beti daude aukerak bihotzari alaitasun bidea erakutsi eta irribarrea azaltzeko ezpainetan.

Merezi baitu mundua mugitzeak haur batek irribarre egin dezan, gutxienez ametsetan. Haien irribarre ederrak hain dira kutsakorrak, eze helduak ere alaitu egiten dituzte momenturik tristee-
netan.

“Asko daukanak gehiago nahi; gutxi duenak daukanarekin pasa”

Elgoibarko Izarrak eta Ilunberri Achademiak aurkezten dute

Erroma Euskal Herrian **hitzaldi-zikloa**



◆ **IRUÑA-VELEIA.**
ERROMATAR HIRIA ARABAN.

Juan Martin Elexpuru.
Otsailak 27, eguaztena.
19:00etan.
Kultur Etxean.

◆ **ERROMA ETA EUSKAL HERRIA.**
GIZARTEAREN ETA LURRALDEAREN
EGITURAKETA.

Jokin Lanz.
Apirilak 10, eguaztena.
19:00etan.
Kultur Etxean.

◆ **EUSKALDUNTZE BERANTIARRAREN**
TEORIA: EGIA ALA GEZURRA?

Luis Mari Zaldúa.
Irailak 18, eguaztena.
19:00etan.
Kultur Etxean.



ELGOIBARKO IZARRA
EUSKALDUNTZEKO TOPAGUNA



ILUNBERRI
ACHADIA



ELGOIBAR
URTZA
AYUNTAMIENTO